

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskola kontseiluen hauteskunde deialdia argitaratu du Hezkuntzak

Hauteskunde mahaiak astelehenetik, azaroak 19, aurrera deituko dira eta hauteskundeak azaroaren 28tik abenduaren 14a bitartean egingen dira

Ostirala, 2018.eko azaroak 16

Hezkuntzako zuzendari orokorrak gaur onartu ditu Nafarroako Foru Erkidegoetako ikastetxeetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko deialdiak. Ikastetxe bakoitzeko hauteskunde mahaiak datorren astelehenetik, azaroak 19, aurrera deituko dira eta hauteskundeak azaroaren 28tik abenduaren 14a bitartean gauzatuko dira.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean gaur argitaratu dira [itundutako ikastetxe, Haur eta Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Helduen Oinarrizko Hezkuntza, Bigarren Hezkuntzako Insitutu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutu, Iruñea eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala](#) nahiz [Arte irakaskuntzen ikastetxe publikoetako](#) Eskola Kontseiluak aukeratzeko hauteskunde deialdiak.

Prozesua, ohikoa denez, ikastetxeentzako ezaguna da, izan ere erresoluzioak Hezkuntza departamentuko webgunean argitaratu ziren, nahiz eta prozesuari ez zaion hasiera emanen NAOn argitaratu arte; hortik aurrera, ikastetxeak libre izango dira eskola kontseiluen aukeraketa noiz hasi nahi dituzten erabakitzeko, beti ere azaroaren 19tik aurrera. Prozesua arauak zehazten du eta segurtasun juridiko osoa du.

Hezkuntza Departamentuak zehaztutako arauak ezartzen duten moduan hautsekunde deialdia egin beharko dute egoera honetan dauden ikastetxeek: eskola kontseiluak lehenbiziko aldiz hautatu behar badituzte, eskola kontseiluen zati bat berritu behar badute, hau da, erdietako bat berritu behar badute hartan egoetako hautatutako kideei dagokioen kargualdia bukatu zaielako edota itundutako ikastetxeetan zuzendaria berritu behar badute, haren agintaldia bukatu delako.

Aipatzekoa da eskola kontseiluetako kide direla ikastetxeko zuzendaria, ikastetxearen titularrak, ikasle zein irakasleen ordezkariak, guraso elkarteetako kideak zein administrazio eta zerbitzu arloko kideak.

Hautetsien aldarrikapena egin eta ondoko zazpi egun naturaleko epean, zuzendariak Eskola Kontseilua eratzeko bilkurako deialdia egingen du.

Ikastetxeko gehiengoa

Zuzendarien hautaketan hezkuntza komunitatearen parte hartzea susatzeko Celaá ministrak aurreratutako aldaketaren aurrean, kontuan

izan behar da Hezkuntza Departamentuak jada bide horretan eragiten duen aldaketa jaso duela 7/2007 Foru Agindua moldatuz, zeinari esker hezkuntza komunitateak ordezkari zabalagoa duen aukeraketa administratiboa baino. Foru Agindu horren aldaketak administratiboko ordezkarietako bat ikastetxeko ordezkari bat izatea zehazten du. Ondorioz, hezkuntza komunitateko aukeraketa komisioak gehiengo berreskuratu zuen.